

• Krea proiektua •

# Egunerokoari aurre egiten ikasteko

Aurtengo Nafarroa Oinez ekitaldiaz arduratuko da Etxarri Aranazko Andra Mari Ikastola. Hara gerturatu gara, martxan duten Krea proiektuaz hitz egiteko asmoz. Muxi Mariñelarena ikastolako zuzendari pedagogikoak azaldu digu zer den Krea: hurrei bizitzak jartzen dituen egoerei aurre egiten erakusten dien egitasmoa.

JANIRE DIAZ

Argazkiak: Andra Mari Ikastolak utziak

ANDRA MARI IKASTOLAK Nafarroako Ikastolen Proiektu Curricularren parte diren zenbait egitasmo jarri ditu martxan. Horietako bat da Krea. Mariñelarenarekin hizketan, bost urteko hurrei ikastolan gizarteratzen erakusten zaiela ohartu gara. Krearen bidez, hurrek pixkanaka gaitasun eta balore desberdinak lortzen dituzte, eta arazo arrunt zein konplexuenei erantzuten ikasten dute. “Problema bat ez da izaten esatea nik 20 euro ditut eta 3 gastatuz gero zenbat gertatzen zaizkidan. Planteatzen zaizkienak benetako problemak dira, pentsarazteko balio dutenak”. Lehen hezkuntzako seigarren mailan, adibidez, ondokoa planteatu zuten klase batean: “Faro bat dago irla batean; marea igoztean, zer gertatuko da?”, edo “hegazkina hartu behar badut 14:00etan, maleta noiz entregatuko dut?”. Kasu horietan, amaieran arazoa ebaluatzeko irizpideak landuko dituzte: “Garaiz iritsi naiz, maleta guztiak eraman ahal izan ditut, eta abar”. Mariñelarenaren

arabera, problema ageriko egitea da garrantzitsuena eta horren aurrean jarrera baikorra agertzea. Andra Mari Ikastolan, irtenbide sortzaileak emateko trebatzen dituzte hurreak, besteen iritziak errespetatuz eta talde lana sustatuz.

Pentsamendu bertikala lantzen da arazoei aurre egiteko: arrazonamendua, logika eta analisisen bitartez eguneroko buruhausteei irtenbidea ematea. “Pentsamendu bertikala ez dugu behar bezala garatu, eredu egonkorak aurkitzeko beharra izaten dugu eta ez ditugu erantzunak aurkituko ordenagailuetan. Askotan horrek frustratu egiten gaitu”, dio zuzendari pedagogikoak.

Andra Mari Ikastolako hurrek irakasleak planteatutako arazoei erantzuna eman behar diote.





Haur hezkuntzatik hasi eta derrigorrezko hezkuntzara arte egiten du lan Kreak. Astean saio bat egin ohi dute eta lantzen den arazoaren arabera izaten da iraupena (batzuetan ordu erdi, bestetan 45 minutu inguru...). Haur hezkuntzako ikasleek aukera aniztasunaren printzipioa barneratu behar dute. Arazoa planteatzen zaie eta horretarako beharrezko materiala erabiliz, soluzioak eskaini beharko dituzte hamabost minututan. "Garrantzitsuena bakoitzari bururatzen zaiona esatea da. Dena da onargarria eta hori barneratu behar dute. Bakoitzak bere iritziak bota behar ditu". Lehen zikloaren hasieran, aldiz, balorapen atzerapena eta elkar-jarioa ere lantzen dituzte. Hots, jartzen zaizkien arazoei irtenbideak aurkitu behar dizkiete, aukerak bilatuz, baloratuz eta lehenetsiz. Gai-

**Muxi Mariñelarena, ikastolako zuzendari pedagogikoa.**

nera, entzuketara aktiboa landu behar dute: "Jonek esan duenarekin ados nago, baina hau eta hura gehituko nizkioke": hori da egitasmoaren filosofia.

Lehen hezkuntzaren hirugarren zikloan eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehenengo mailan, Ideal prozedura jorrotzen dute ikasleek, problemak ebazteko Ikastetxeko Proiektu Curricularreko prozedura orokorra. Problema berri bat sortzen denean, berau identifikatu, definitu, aukerak ebaluatu, saiatu eta helburuak lortu behar dituzte.

Anitzak dira baliatzen dituzten erremintak. Arazoa parametroetan banatzen dute eta, konplexua bada, azpi-parametroak ere sortzen dituzte. Adibidez, erreminta erabilienetakoa *six and six* formula da: sei galdera dituzte eta erantzunak baiezkoan eta ezezko-

**Lehen hezkuntzan ondokoa planteatu zuten: "Faro bat dago irla batean; marea igotzean, zer gertatuko da?", edo "hegazkina hartu behar badut 14:00etan, maleta noiz entregatuko dut?"**



**Sakanako Turismo Bulegoak**



[www.sakanaturismo.com](http://www.sakanaturismo.com)

**Altsasuko Turismo Bulegoa**  
Tel. 608 17 51 90  
Baratzeko bidea · 31800 Altsasu  
[altsasu@sakanaturismo.com](mailto:altsasu@sakanaturismo.com)

**Etxarriko Turismo Bulegoa**  
Tel. 608 007 802  
Nagusia 10 · 31820 Etxarri Aranatz  
[etxarri@sakanaturismo.com](mailto:etxarri@sakanaturismo.com)



**Mank.**  
Sakanako Mankomunitatea  
Urriz 18 · 31830 Lakuntza  
T: 948 46 48 67  
F: 948 46 48 53  
[www.mankomunitatea.com](http://www.mankomunitatea.com)

an. Ezezkoa erantzunez gero, behar ez dituzten aukerak baztertu eta arazoa enfokatzen joan ohi dira. Seigarren mailako ikasleek aukera horiek bildu eta ebaluatu ostean erabakia hartzen dute.

Krearen beste puntu garrantzitsu bat auto-blokeoa saihestea dela argitu du Mariñelarenak, akatsa arrakasta bide dela azpimarratuz. “Ikasleei beti aipatzen diegu: elur maluta bat antzeman eta neurriak hartzen badituzu, elur jausia saihtets dezakezu. Irakasleok hezkuntza proiektua ebaluatu behar dugu ezinbestean. Prozesuan parte hartuz eta barneratuz gero, emaitza onak lor daitezke eta ikaslea motiba daiteke”.

Ikasleek Krea saioetan ondo pasatzen dutela nabarmendu digu zuzendariak. Mas-kota bat ere badu Krea ekimenak, bost urte dituzten haurren saioetara joan ohi dena. Haurrak borobila eginez esertzen dira, eta eguneko planifikazioa egiten dute. Ikasitako printzipioak praktikan jartzen dituzte eta aurretiko lanak fruituak ematen ditu. “Irakasleak galdetu zuen ea zelakoa izan zen atzoko bidaia eta batek logalea pasa zuela esan zuen. Harrituta geratu nintzen beste ikasle batek ‘aurrekoak esan duen bezala, nik ere logalea pasa nuen’ erantzun zuenean”. Besteek esandakoa entzuten dute eta pixkanaka, baloreak barneratzen dituzte ikasleek.

Krea proiektuan zentratu gara, baina ez da ikastetxeko Proiektu Curricularraren baitan dagoen bakarra. Irati proiektuan, informazioaren kudeaketarako teknikak lantzen dituzte haur hezkuntzatik hasi eta derrigorrezko bigarren hezkuntzara arte. Kontzeptu mapak txertatzen dituzte irakasgaietan, baita laburpenak, infografiak, eskemak edota organigramak ere.

Orgi egitasmoa hezkuntza proiektuen parte zen, baina bertan behera geratu da. Orgik ziklo bakoitzean ikasleek barneratu zutena praktikan jartzea zuen xede. “Nik uste dut kompetentziaz gehiago jabetzen garenean,

**“Garrantzitsuena bakoitzari bururatzen zaiona esatea da. Dena da onargarria eta hori barneratu behar dute. Bakoitzak bere iritziak bota behar ditu”**

**Muxi Mariñelarena**

berriz ere abian jarri ahal izango dela”, dio Mariñelarenak.

### **Txikiak handi, hizkuntza gutxituen sarea**

Urriaren 18an Etxarri Aranazen ospatuko den Nafarroako ikastolen aldeko jaian, festa giroa eta alaitasuna izango dira nagusi. Andra Mari Ikastola da hori ahalbidetuko duen motorra. Euskararen normalizazioa bultzatu nahi da jaialdiarekin, baina Etxarri Aranazko ikastola berritzea ere lortu nahi dute. Horrez gain, ikastolen proiektua Nafarroako mugetatik atera eta hizkuntza gutxituak dituzten herriekin sare bat sortu nahi dutela adierazi du zuzendari pedagogikoak. “Nafarroa Oinez pasatutakoan, lasaitzen garenean, Txikiak handi proiektuan interesatuta gaudenok bildu eta horri jarraipena eman beharko genioke”.

Urriaren 16an Arbizun topaketa egingo dute: euskararen normalizazioan lan egiten duten giza erakundeen ordezkariak euren azalpenak emango dituzte. Aragoiko, Kataluniako, Galesko eta Bretainiako ordezkariak izango direla adierazi du Mariñelarenak, Europako hizkuntza gutxituen ahuleziak eta indarrak zeintzuk diren plazaratuko dute, eta ondoren manifestu bat kaleratzeko asmoa dute. ■

**Hotela**  
 Errota kalea z/g  
 31839 Arbizu (Nafarroa)  
 Tel.: 948 46 18 76  
 Fax: 948 46 18 77  
 info@hotelolatzea.com  
 www.hotelolatzea.com

**Jabetxea**  
 Tel.: 948 46 18 84  
 restaurant@hotelolatzea.com

**ETXARRI - ARANAZKO UDALA**  
 31820 NAFARROA  
 etxarriudala@infonegocio.com

*Euskara bizi-bizi*

Udala:	948 46 00 04
Fasa:	948 46 05 06
Ozain Etxea:	948 56 70 60 / 61
Gizarte Zerbitzuak:	948 46 07 52
COHES:	948 56 70 63
Escola Publikoa:	948 56 70 03
Andra Mari Ikastola:	948 46 02 06
Musika Eskola:	948 46 00 04
Epaltokia:	948 46 01 66
Kanpina - Igerilekua:	948 46 05 37
Herri Liburutegia:	948 46 11 81
Kultur Etxea:	948 46 09 30
Beleku Iratia:	948 46 12 20